

## ARAZO EGOERA

# EKOLOGISMOA

**ARLOA:** Natur Zientziak, Gizarte Zientziak, Batxilergo artistikoa, etab.

**MAILA:** Batxilergoa eta Lanbide Heziketa

## 2030 AGENDA KO HELBURUAK

Jarduera honekin 2030 Agendaren Garapen Iraunkorrerako Helburu hauek lantzen dira:



## TESTUINGURUA

Kalean pasiatzen ari zarela, espaloi ondoan aparkatuta dauden ibilgailuei begira zoaz. Halako batean, auto zahar baten atzeko kristalean honako eranskailu hau ikusi duzu:



---

## **ARAZOA**

Irudi ezaguna egin zaizu, baina ez dakizu benetan zer esan nahi duen edo zein testuingurutan kokatzen den mezu hori.

---

## **XEDEA**

Mugimendu ekologistaren historia ikertzea, sorreratik gaur egun arte izan duen bilakaeraz ohartzea eta mugimendu horren oinarrian dauden eskabideen berri izatea.

---

## **HELBURUAK**

- Ekologismoaren sorrera historian kokatzea.
- Ekologismoaren bilakaera aztertzea, sorreratik gaur egun arte.
- Historian zehar izan diren mugimendu ekologista garrantzitsuenak ezagutzea (mundu nahiz eskualde mailakoak).
- Mugimendu sozial honen oinarrian dauden printzipioak identifikatzea.
- Garaian garaiko testuinguruetan ekologismoak izan dituen jarrerak identifikatzea.
- Ekologismoak historiako hainbat etapatan izan dituen (eta oraindik dituen) erronka eta zailtasunak ezagutzea.
- Ekologismoak mugimendu sozial gisa duen garrantziaz ohartzea.
- Gaur egungo testuinguruan ekologismoak duen paperari buruz gogoeta egitea.
- Eskualde edo herri mailako mugimendu ekologistak edo haien eskabideak ezagutzea eta ulertzea.
- Etorkizunera begira ekologismoak ze leku izango duen hausnartzea.

## ATAZA

Mugimendu ekologistari loturiko 4-5 minutuko ikus-entzunezko labur bat grabatu eta muntatzea. Dokumental erakoa, erreportajea edo testuinguru jakin bateko film laburra izan daiteke.

## JARRAIBIDEAK

- “Ez, eskerrik asko” **pelikula ikusi**, lagungarria izan baitaiteke, batez ere lanketari hasiera emateko.
- Ekologismoaren historiari buruzko informazioa bildu eta analisi **dokumentala / film laburra egin**.
  - Ekologismoak mundu mailan nahiz ikasleen gertuko eskualdean izan duen presentzia ikertu.
  - Eskualde edo herri mailako mugimendu ekologisten eskabideak identifikatu. (Elkarte ekologistak: [Baliabideak](#))
  - Gaur egun mugimendu ekologistak ikasleen eskualdean defendatzen duen kausa ezagutu, eta gatazka sortu duten ekintzak eta haien ondorioak bertatik bertara ikustera joan.
  - Zenbait kasutan, mugimendu ekologistetan parte hartutako familiarteko edo ezagunak elkarriketatzea aberasgarria izan daiteke.
  - Mugimendu sozial honen ikuspegi zabal bat landu denean, ikasle talde bakoitzak ikus-entzunezkoa prestatzeko testuinguru eta formatu interesgarriena aukeratu dezake, eta filmaren grabaketa eta muntaia egin.
- Amaitzeko, talde bakoitzak bere lana **gainontzeko ikaskideei aurkeztuko** die, aukeraketa arrazoituz eta ideia edo mezu garrantzitsuenak azalduz.
- Prozesua eta ikaspena ebaluatu (**koebaluazioa eta autoebaluazioa**).